

Kop.	Kontzeptua	1. mota		2. mota
		1A azpimota	1B azpimota	
1	Instalazioaren titularraren egoera administratiboa	Kontsumitzailea		Ekoizlea eta kontsumitzailea
2	Instalazioaren titulartasuna	Titular bera ekoizpen- eta kontsumo-instalazioetarako		Titular bera produkzio- eta kontsumo-instalazioetarako, edo bakoitzerako titular bat
3	Sarera isuritako soberakin-energiaren ordainsaria	Ez		Bai, 413/2014 Errege Dekretuarekin bat, bai eta ETU/130/2017 Aginduaren arabera ere, hala badagokio.
4	Horniduran kontratatutako potentzia	≤ 10 kW	Behe-tentsioa: > 10 eta ≤ 100 kW Goi-tentsioa: ≤ 100 kW	Murrizketarik gabe
5	Konexio-tentsioaren maila	Behe-tentsioa	Behe-tentsioa edo goi-tentsioa	Behe-tentsioa edo goi-tentsioa
6	Instalazioaren baldintza teknikoaren araudi aplikagarria	1699/2011 Errege Dekretua		1699/2011 Errege Dekretua (≤ 100 kW eta behe-tentsioa) 1955/2000 Errege Dekretua (> 100 kW eta goi-tentsioa) 413/2014 Errege Dekretua
7	Sistemaren kostuekin lotutako karguen ordainketa (finkoa eta autokontsumitutako energia)	Ez (autokontsumitutako energiatik kargu iragankorra ordaintzetik salbuetsita)	Bai	Bai (24/2013 Legea indarrean jarri zen garaiko kogenerazio-instalazioen kasuan izan ezik, salbuetsita egongo baitira 2019/12/31era arte).
8	Sarera sartzeko eta konektatzeko azterketaren ordainketa	Salbuetsita, baina sarera ez isurtzeko sistema bat instalatzen baldin bada bakarrik.	Bai	Bai
9	Autokontsumoko administrazio-erregistroan izena ematea	Erregistroa: titularrak edo instalatzaileak		Erregistroa: titularrak
		1. atala	2. atala	2. atala
10	Instalatu beharreko neurketa-ekipoen kopurua (muga-puntuetan)	Bi ekipo (kontsumoa eta sorkuntza)		Bi ekipo nahitaezkoak (kontsumoa eta sorkuntza), eta bat, aukerakoa
11	Sareko sarbiderako gordailu-abalaren beharra	Ez		Bai, 10 €/kW (2. motako eta 10 kW baino potentzia gutxiagoko instalazioetan izan ezik)



Kontzeptu bakoitzari dagozkion oharra:

- 1 Titularraren egoera, administrazio-ondoretarako. 2. motako autokontsumorako, bi figura juridiko daude, eta ekoizlea enpresa batekin parekatzen da; izan ere, kontuan hartzen da jarduera ekonomiko bat egiten duela, sarera injektatutako energiarengatik jasotzen duen ordainsaria dela eta.
- 2 900/2015 Errege Dekretuaren 5.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, 1. motako instalazioetan hornidura-puntua sarean konektatutako kontsumo-ekipoen eta sorkuntza-instalazioen bera izango da; alabaina, baldintza hori ez zaie aplikatuko 2. motakoek.
- 3 1. motako autokontsumitzaileak EZ du jasoko kontraprestazio ekonomikorik sarera isuritako energiagatik. Aitzitik, 2. motako autokontsumitzaileek ORDAINSARIA JASOKO DUTE sarera isuritako energia-soberakinagatik; horretarako, 413/2014 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak aplikatuko dira oro har, eta, hala dagokionean, ETU/130/2017 Aginduan ezarritakoak. Hala, soberan den energiagatik ordainsari espezifiko bat jaso ahal izango da. Eskuarki, 2. motako instalazioek energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagokion % 7 ordaindu beharko dute, baita sarera isuritako energia sortzeko bidesaria ere: 0,5 €/MWh.
- 4 Instalazioaren modalitatea guztiz baldintzatzen du hornidurak kontratatutako potentziak, eta ez sistema sortzailean instalatutako potentziak. 100 kW baino gehiagoko potentzia kontratatuta duten hornidurekin lotutako instalazioak (edozein dela haien tarifa-tartea) nahitaez 2. motakoak izango dira. 100 kW baino gutxiagoko potentzia-hornidura kontratatuekin lotutakoak, berriz, 1. motakoak zein 2. motakoak izan daitezke.
- 5 Administrazioaren ikuspegitik, konexioko tentsio-mailak ez du baldintzatzen instalazioaren modalitatea. 1. motako zein 2. motako instalazioak berdin-berdin egon litezke goi-tentsioan zein behe-tentsioan konektatutako hornidurekin lotuta. 1. motako instalazioei lotutako abantaila jakinak baliatu ahal izateko, hornidurek behe-tentsioan konektatuta egon beharko dute, eta kontratatutako potentziak 10 kW edo gutxiago izan beharko du.
- 6 Instalazioaren potentziaren, konexio-tentsioaren mailaren eta modalitatearen arabera, aurreko taulan adierazitako arauak aplikatuko dira alderdi teknikoekin lotutako auzietarako, eta, hala dagokionean, baita alderdi ekonomikoetarako ere.
- 7 Sistemarekin lotutako karguak behin betiko onartu arte, 1A autokontsumo-modalitatearekin bat egindako kontsumitzaileek kargu iragankor finkoa bakarrik hartuko dute euren gain (€/kW), eta salbuetsita egongo dira autokontsumitutako energiagatik kargu iragankor aldakorra ordaintzetik (€/kW). Karguon prezioak 900/2015 Errege Dekretuan zehaztuta daude, [ETU/1976/2016 Aginduaren bidez erantsitako eguneratzearekin](#).

- 8 1A motako kontsumitzaileek, egiaztatzen badute badutela gailu bat energia sarera berehala isurtzea galarazteko, 1048/2013 Errege Dekretuan aurreikusitako sarbide- eta konexio-azterlanak ordaintzetik salbuetsita egongo dira, baita 1699/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako sorkuntza-hartuneko eskubideak ordaintzetik ere.
- 9 900/2015 Errege Dekretuan bildutako autokontsumoko instalazioak nahitaez erregistratu behar dira Autokontsumoko Administrazio Erregistroan, lehen aipatutako Errege Dekretuaren 2. eranskinean ezarritako komunikazio-ereduarekin bat. Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioaren Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du erregistro hori. Bestalde, 1. motako autokontsumo-modalitatean bildutako kontsumitzaileen kasuan, erregistroan izena emateko eskabidea hornidura-hargunearen titularraren izenean egin ahal izango du enpresa instalatzaileak.
- 10 1. motako autokontsumitzaileek gutxienez bi neurketa-ekipo ipini beharko dituzte: batek sorkuntza-instalazioak sortutako energia garbia erregistratu beharko du, eta besteak, berriz, instalazioaren muga-puntuan ipini beharreko saretik eskatutako energia kontabilizatuko du (kontsumitzailea garraio- edo banaketa-sarearekin lotzeko puntua). 2. motako autokontsumitzaileek, oro har, bi neurketa-ekipo ipini beharko dituzte: bata sorkuntza-instalazioak sortutako energia garbia erregistratzeko, eta beste bat independentea, orotara kontsumitutako energia erregistratzeko. Aukeran, beste ekipo bat ere instalatu ahal izango dute, hirugarrena, instalazioaren muga-puntuan. Instalatutako potentzia 100 kW baino handiagoa ez denean, konfigurazioa 1. motako autokontsumo-kasuko bera izango da, eta hirugarren ekipo bat hartzeko aukera ere izango du, zeinak orotara kontsumitutako energia erregistratuko lukeen. Sistema elektrikoa neurtzeko puntuen araudi bateratua onartzen duen Errege Dekretuan (abuztuaren 24ko 1110/2007) ezarritakoarekin bat, neurketa-ekipoak, eskuarki, muga-puntuan ipini beharko dira, salbuespen batzuetan izan ezik.
- 11 Bestalde, 2. motako instalazioek, banaketa-sarera sartzeko eskaera egin aurretik, 10 €/kW-eko abal bat ipini beharko dute (10 kW baino potentzia apalagoko 2. motako instalazioen kasuan izan ezik), guztia ere energia elektriko garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta instalazioak baimentzeko jardunbideak arautzen dituen Errege Dekretuaren (abenduaren 1eko 1955/2000) 66 bis artikuluan ezarritako baldintzetan.

Ohar gehigarriak:

- 1 Energia biltegitzeko sistema.- Edozein izanda ere modalitate administratiboa, bai 1. motako autokontsumo-instalazioek bai 2. motakoek biltegitze energetikoko sistemak gehitu ahal izango dituzte (bateriak); eskuarki, kargaren/deskargaren kudeaketa-sistemak izango dituzte, aldagai energetikoa ekonomikoarekin uztartzeko.
- 2 Autokontsumo partekatua.- 900/2015 Errege Dekretuan ezarritako modalitate batek ere ez du uzten autokontsumo partekatuko instalazioak egiten hainbat erabiltzailearekin batera.
- 3 Saldo energetikoen konpentsazioa.- 900/2015 Errege Dekretuan ezarritako autokontsumoko modalitate batek ere ez du uzten sare elektrikoarekin saldo energetikoak egunean edo hilean konpentsatzen. Dena dela, ordu-tarteetan modu puntualean, neurketa-ekipoen funtzionamenduetatik berarengatik, instalazio horiek ordutegietan konpentsatu ahal izango dituzte saldo energetikoak sare elektrikoarekin. Konpentsazio puntual hori ez da posible izango baldin eta instalazioak energia berehala sarera isurtzea galarazten duen gailu bat badu (isuririk gabeko edo zero injekzio sistemak).